

KORONABIRUSA ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN

430 positibo berri
2.046 hildako EAEn
14.366 positibo guztira* UCIIn EAEn

NAFARROAN

547 positibo berri
643 hildako
24.526 positibo guztira UCIIn Nafarroan

*HERNANIN 443 (+14), ASTIGARRAGAN 110 (+1)

Bihar ospatuko da 2021eko aurrekontu parte-hartzaileetako prozesuaren bigarren saioa

Arratsaldeko 18:30etatik 20:00etara bitartean egingo dute bilera, Santiomendi Kaxkoan; eta saio gehienak datorren astean izango dira.

ASTIGARRAGA UDALA

Guztira 8 saio izango dira, eta ostegunean izan zen lehenengo Perurena auzoan. Aurten COVID-19aren ondorioz, saioak egiteko formatua moldatu egin da. Hori horrela, ez dira ohiko bilera irekiak izango, eta horren orde, partehartze-puntuak jarriko dira leku irekietan. Moldaketa honek «distantziak mantentzea eta pilaketak ekiditea ahalbidetuko» duela adierazi du Udalak.

Aurrekontu parte-hartzaileetako saioak moldatu diren arren, helburuak bera izaten jarraitzen du: herritar eta auzotarrek udal gobernuo kideei eskaerak, kritikak, iritziak eta proposamenak

helaraztea, hain zuzen ere. Horrekin batera, Udalaren asmoak ezagutu ahal izango dituzte interes dutenek, eta horretarako deialdia egin du Udalak.

Saioen egunak eta lekuak

Datozen bi asteetan egingo dituzte saio guztiak, eta bilera egutegia honako hau izango da: bihar, Santiomendi Kaxkoan, auzoko postontzien aurrean, 18:30etatik 20:00etara bitartean. Etzi erdigunean, Joseba Barandiaran plazan, 12:00etatik 13:30etara. Asteazkenean, berriz, bi lekutan egingo dira saioak, ordutegi ezberdinean: Ergobiko plazatxoan, 12:00etatik 13:30etara bitartean, eta Erribera Kulturguneko atarian, 18:30etatik 20:00etara.



Joseba Barandiaran plazan egingo dute hirugarren saioa, etzi.

Urriaren 22an, osteguna, Santiomendi ekialdean, Ermaña aurrean, 18:30etatik 20:00etara izango da saioa. Azkenurreko bilera Udaletxeko plazan izango da, urriaren 23an, ostirala, 16:00etatik 17:30etara bitartean. Eta azken saioa urriaren 26an egingo da, Oialumen, Auzobiltokiaren aurrean, 18:30etatik 20:00etara.

Azkenik, Udalak jakinarazi du saioetara bertaratu ezin duten

herritarrek, ez dutela ekarpenak egiteko aukera galduko. Horregatik, aurrekontuetan parte-hartu nahi dutenek, Udalaren webgunea idatzita azaldu ditzakete beraien ideiak. Edo, bestela, zuzenean <https://www.astigarraga.eus/eu/bidali-mezua> estekan sartu eta iritzi, ekarpen, proposamen edo keak idatzi daitezke. Horretarako, datu batzuk bete behar dira lehenik, eta iradokizuna idatzi daiteke ondoren. **K**

Kromiki lehiaketan parte hartzeko epea astebete luzatu da

HERNANI DOBERA EUSKARA ELKARTEA

Adin guztietako sortzaileentzat antolatu du Kromiki lehiaketa Dobera Euskara Elkarteak, «euskal kultura, sorkuntza eta irakurzaletasuna sustatzeko asmoz». Astebete luzatu dute parte hartzeko aukera eta, beraz, datorren ostirala, urriaren 23a, da lanak aurkezteko azken eguna.

Argitu tailerrerako izen-ematea zabalik

HERNANI TAILERRA

Asteartean Argitu tailerra izango da Hernanin. Oraingo honetan etxebizitza birgaitzeko garaian eraginkortasun energetikoa hobetzeko moduko azalduko dituzte. Izena eman nahi duenak bihar du horretarako azken eguna.

Diana berezia gaur, txistulariekin

EREÑOTZU MUSIKA

Hernaniko Txistulari Banda Ereñotzun izango da gaur, goizeko 11:00etatik aurrera. Diana berezia egingo dute auzoan barrena, kaleak girotzeko asmotan.

'Street Scape Room', ostegunean

HERNANI GAZTELELUA

Gaztelekuak *Street Scape Room* antolatu du, ostegun honetarako. Donostiatik barrena, 2 ordu izango dituzte pistak argitu eta *La leyenda del mercader de relojes*-en misterioa argitzeko. Horretarako, tablet bat, material ezberdinez betetako motxila bat... utziko dizkiete. Parte-hartzeko, ezinbestekoa da aldeaz aurretik izena ematea: *WhatsApp* bidez (617 11 22 58), korreoz, hgaztelekua@gmail.com helbidetan, edota Gaztelekuan bertan.

Jende elkartzak 6 pertsonatara mugatuko ditu Jaurlaritzak, eta tabernek gauerdian itxi beharko dute

«EAEko Auzitegi Nagusiak berretsi eta gero» sartuko dira indarrean neurriak, eta ez da baztertu datozen egunetan bestelako neurri batzuk hartzea.

URUMEA COVID-19

Atzo eguerdian neurri berriak iragarri zituen Gotzone Sagarduik, Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburuak. Bestiak beste, bilerak sei pertsonatara mugatzea, elkarte gastronomikoak ixtea eta tabernen eta kultura ekitaldien edukiera %50era jaistea. LABI aholku batzordeak egoera epidemiologikoa aztertu ondoren erabaki zuten neurri horiek zehaztea, EAEn birusaren intzidentziak hirugarren maila

gainditu duelako. Momentu honetan «transmisio maila altua da». Izan ere, azken egunetako positibo datuei begira, Biziberri II planean aurreikusitako bost egoeretatik laugarrenean dago Euskal Autonomia Erkidegoa.

Datorren astean sartuko dira indarrean neurriak

Pertsonen mugikortasuna eta jende pilatzeak gehiago mugatzeko neurriak dira Sagarduik atzo iragarri zituenak. Datorren astean sartuko dira indarrean,

«Auzitegi Nagusiak berretsi eta gero».

Ondorengoak dira Sagarduik atzoko prentsaurrekoan izendatu zituen prebentzio neurri berriak: talde bilerak, arlo pribatu zein publikoan, gehienez sei pertsonakoak izan ahal izango dira; edukiera %50ean ezarri du jarduera guztietan, hau da, ostalaritzan (terrazetan izan ezik), kultura ekitaldietan, zeremonia erlijiosoetan eta igogailuetan. Bestalde, datorren astetik aurrera ostalariek gauerdian itxi beharko dute, eta haurrentzako parkeak ezingo dira 23:00etatik aurrera erabili. Horretaz gain, jende elkartzak haundietan 400 pertsonako muga ezarri dute

eremu itxietan, eta 600ekoa espazio irekietan. Gainera, txokoetako eta elkarte gastronomikoetako jarduera debekatu da. Kirol lehiaketa ez federatuei dagokienez, bertan behera geratuko dira.

Azkenik, zaintza- eta miaketa-sarea indartuko dira, 45 pertsona gehiago kontratatuta. Kasu positiboen isolamendu-denbora murriztu egin da 10 egunera, sintomak hasi direnetik edo ospitaleratuta dauden pazienteen alta jaso dutenetik. Betiere gutxienez 3 egun badaramatzate sintoma bateragarririk gabe. Eta kontaktuen berrogeialdia 10 egunera murriztu da, betiere pertsonak osasun gomendioak betetzen baditu. **K**

BIKAIN
OKINDEGI TX GOZOTEGIA

Eguneroko ogia beti bikain

Elkano 12 - Tel.: 943 55 31 42
Eziago poligonoa - Tel.: 943 55 00 89 20120 Hernani

Allianz ASEGURUAK

- bitria
- ibitripak
- ibigailuak
- etxeak
- komertzioak
- enpresak
- ardura zibila
- finantz aseguruak
- inbertsioak

agustin ezponda irizar
agentzia

Nagusia, 13
Telf.: 943 55 73 26
Faxa: 943 33 57 71

Samitek

Belego makinaren salmenta eta mantenimendua

samitek@samitek.es
www.samitek.es

TOSHIBA

INFORMATIKA SAIL BERRIA

943 11 77 44

Dokumentuen kudeaketa
Ez galdu paperak

Adarraga

ADARRAGA
Konfitegia
Pasteldegia

Urbieta Etorbidea 7
943 55 09 10

